

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5786

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, gaztelaniazko literatura-argitalpenetarako laguntzen berri ematen duena.

AURREKARIAK

1.– 2012ko ekainaren 27an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2012ko ekainaren 13ko Agindua, Kulturako sailburuarena, literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

2.– 2012ko ekainaren 13ko Aginduaren 15.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, jendeak jakin dezan, emandako diru-laguntzen zerrenda osoa, onuradunak, kopuruak eta laguntzen xedea zehaztuta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kulturako sailburuaren 2012ko ekainaren 13ko Aginduaren babesean, 2012ko gaztelaniazko literatura edizio-planak garatzeko emandako diru-laguntza guztiak eta horien onuradunak argitara ematea. Datu horiek eranskinean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 27a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

	Diru-laguntza (euroak)
Alberdania S.L.	6.813
Artezblai S.L.	4.717
Astisendo Grupo Editorial S.L.	29.654
Berriotxoia Alberdi Joseba Andoni	471
Ediciones Beta III Milenio S.L.	11.092
Ediciones Mensajero S.A.U.	12.232
Editorial Desclee de Brouwer S.A.	8.088
Editorial Erein S.A.	9.582
Editorial Nerea S.A.	6.837
Editorial Saure S.L.U.	1.425
Euskal Gaiak Abarka S.L.	7.051
Hiria Liburuak S.L.	5.728
Hurtado López Enrique	2.848
Meettok S.L.	757
Tercera Prensa Hirugarren Prentsa S.L.	1.712
Ttartalo S.L.	5.993
Guztira	115.000